BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

# ALDIZKARI OFIZIALA

# BOLETIN OFICIAL

XII LEGISLATURA | XII. AGINTALDIA

**Serie B** **Información, control e impulso** | **Informazinoa, kontrola eta sustapena** **B Saila**

**XIX** **Moción derivada de Interpelación** | **Itaunetik eratorritako Mozinoa** **XIX**

Bilbo, 2024ko otsailaren 9a
Número 7a (B-17-11a) Bilbao, 9 de febrero de 2024 (B-17-11a) 7a alea

**ASUNTO:** Medidas para garantizar el derecho del niño y la niña a que su interés superior sea considerado primordial.

**AUTOR:** De Madariaga Martin, Eneritz

**Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas**

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 6 de febrero de 2024, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

**Tramitación:** Admitir a trámite.
**Calificación:** Conformidad con la calificación propuesta por el autor
**Órgano Destino de Tramitación:** Pleno
**Procedimiento de Tramitación:** Normal
**Plazos:**
Presentación enmiendas a moción derivada de interpelacion: hasta 24 horas antes del comienzo de la sesión.
**Otros acuerdos**
Ordenar la apertura del plazo de enmiendas
Ordenar Publicación en el BOJJGG
Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable
Ordenar la inclusión de la iniciativa en la próxima sesión del órgano destino de tramitación
**Regulaciones:**
Reglamento: Artículos 164, 177 y 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 6 de febrero de 2024.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri.**

**A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA**

Eneritz de Madariaga Martín, portavoz del Grupo Juntero Elkarrekin Bizkaia en las Juntas Generales de Bizkaia, al amparo de lo establecido en el vigente reglamento, presenta la siguiente MOCIÓN DERIVADA DE INTERPELACIÓN, para su debate en el Pleno, relativa a medidas para garantizar el derecho del niño y la niña a que su interés superior sea considerado primordial.

ANTECEDENTES-JUSTIFICACIÓN-MOTIVACIÓN

**GAIA:** Umeen interes gorena funtsezkotzat joteko eskubidea bermatzeko neurriak

**EGILEA:** De Madariaga Martin, Eneritz

**Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea**

Aitatutako gaia dala-ta, erabagi honeek hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2024ko otsailaren 6an izandako bileran:

**Izapidea:** Izapidetzeko onartzea
**Sailkapena:** Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

**Organo hartzailea:** Osokoa
**Prozedurea:** Arrunta
**Epea:**
Itaunetik eratorritako mozinoari zuzenketa-eskeak aurkeztekoa: eztabaidatu baino 24 ordura artekoa
**Beste erabagi batzuk**
Zuzenketa-eskeak aurkezteko epea edegiteko agintzea
BBNAn argitaratzeko agintzea
Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenetarako
Ekimena organo izapide-hartzailearen hurrengo batzarrean sartzeko agintzea
**Araudi oinarria:**
Araudia: 164., 177. eta 92. artikuluak

Guztiak horren jakitun egon daitezan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2024ko otsailaren 6an.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri.**

**BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI**

Eneritz de Madariaga Martinek, Bizkaiko Batzar Nagusietako Elkarrekin Bizkaia batzarkide-taldeko taldeburuak, indarrean dagoan Araudian ezarritakoaren arabera, umeen interes gorena funtsezkotzat joteko eskubidea bermatzeko neurriei buruzko ITAUNETIK ERATORRITAKO MOZINO hau aurkezten dau, Osokoan eztabaidatzeko.

AURREKARIAK-JUSTIFIKAZINOA-ERRAZOIAK

El Comité de los derechos del niño establece la obligación de que todas las medidas concernientes a los niños que tomen las instituciones públicas o privadas de bienestar social, los tribunales, las autoridades administrativas o los órganos legislativos, una consideración primordial a que se atenderá, será el interés superior del menor.

Para lo cual insta a los gobiernos de todos los niveles, organismos públicos e instituciones a desarrollar modelos locales de evaluación de impacto de las políticas públicas en los derechos fundamentales de los niños y niñas, y así garantizar la buena gobernanza en sus derechos.

Señala así mismo, que pueden aplicarse diferentes metodologías y prácticas para llevar a cabo la evaluación del impacto. Aunque establece que como mínimo, se deben utilizar la Convención y sus Protocolos facultativos como marco, en particular para garantizar que las evaluaciones se basen en los principios generales y tengan especialmente en cuenta los efectos diferenciados que tendrán en los niños y niñas la medida o medidas examinadas.

Así mismo, establece que el análisis debería culminar con la formulación de recomendaciones de modificación, alternativas y propuestas de mejora y ponerse a disposición del público. Tal y como se recoge en la Guía para la elaboración de las evaluaciones de impacto en la infancia y la adolescencia realizado por el ENOC (Red Europea de Defensores para la Infancia) avalada por el Ararteko.

Es por ello que, desde el Grupo Juntero Elkarrekin Bizkaia, formulamos la siguiente MOCIÓN DERIVADA DE INTERPELACIÓN:

1. Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a incorporar la perspectiva de los derechos de la infancia y adolescencia en todas las políticas públicas, garantizando que el interés superior del niño y la niña se recoja y aplique en la elaboración de normativas, estrategias, programas, planes y presupuestos que afecten de forma directa o indirecta a las niñas y niños, de acuerdo a como se establece en la Observación nº14 del Comité de los Derechos del Niño sobre el derecho del niño a que su interés superior sea una consideración primordial.

2. Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a la adopción de herramientas para sistematizar la determinación y evaluación del interés superior del menor, facilitando así la incorporación de la perspectiva de los derechos de la infancia a las políticas públicas.

3. Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación a proporcionar formación a las personas responsables de la elaboración de las normativas, estrategias, programas, planes y presupuestos, para la correcta determinación y evaluación del interés superior del menor.

Bilbao, 1 de febrero de 2024

**Eneritz de Madariaga Martín,**
Portavoz del grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia

Haurren Eskubideei buruzko Batzordeak betebehar hau ezarten dau: gizarte-ongizateko erakunde publiko edo pribatuek, auzitegiek, administrazino-agintariek edo legegintza-organoek umeei buruz hartzen dituen neurri guztietan, adingabearen interes gorena izango da kontuan hartuko dan funtsezko erespidea.

Horretarako, maila guztietako gobernuei, erakunde publikoei eta bestelako erakundeei eskatzen deutse tokiko ereduak garatu daiezala politika publikoek umeen oinarrizko eskubideetan daben eragina ebaluetako, umeen eskubideen gobernantza ona bermatzearren.

Eragin hori ebaluetako, askotariko metodologiak eta jarduerak aplikatu leitekezala be adierazo dau batzorde horrek. Edozelan be, ezarten dau gitxienez Konbentzinoa eta haren hautazko protokoloak erabili behar dirala esparru lez, batetik, bermatuta egon daiten ebaluazinoak printzipio orokorretan oinarritzen dirala eta, bestetik, kontuan hartu daitezan aztertutako edozein neurrik umeengan izango dituan berariazko ondorioak.

Batzordeak, era berean, ezarrita dauka eze, azterketa amaitutakoan, ezinbestean formulatu beharko dirala aldaketa-gomendioak, alternatibak eta hobetzeko proposamenak; horreek guztiak jendearen eskura jarriko dira. Holan dago jasota ENOC erakundeak (Haurren Defendatzaileen Europako Sarea) haurren eta nerabeen ganeko eraginaren ebaluazinoak gauzatzeko egindako gidan; gida horrek Arartekoaren bermea dauka.

Hori dala-eta, Elkarrekin Bizkaia batzarkide-taldeak ITAUNETIK ERATORRITAKO MOZINO hau aurkezten dau:

1. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegia politika publiko guztietan txertatu daiala, haurren interes gorena haurrei zuzenean edo zeharka eragiten deutsien araudi, estrategia, programa, plan eta aurrekontuak egitean jaso eta aplikatuko dala bermatuz, Haurren Eskubideen Batzordearen 14. oharrean ezarten danaren arabera, haurren interes gorena funtsezko erespide izan daiten, horretarako eskubidea daukie eta.

2. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie tresnak jarri daizala adingabearen interes gorenaren zehaztapena eta ebaluazinoa sistematizateko, holan errazagoa izan daiten haurren eskubideen ikuspegia politika publikoetan txertatzea.

3. Bizkaiko Batzar Nagusiek Aldundiari eskatzen deutsie prestakuntza emon deiela araudiak, estrategiak, programak, planak eta aurrekontuak egiteko ardurea daben pertsonei, adingabearen interes gorena behar dan moduan zehaztu eta ebaluatu ahal izan daien.

Bilbon, 2024ko otsailaren 1ean

**Eneritz de Madariaga Martín,**
Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaia taldeko taldeburua